


Astekaria

BARREN

elgoi



Errota zaharrak berreskuratuz



GENERALI ASEGURUAK "RONKINA"

Santa Ana 20. ☎ 74 41 01

Aitor Eizagirre Ondarza 200105 agentea

- ETXE ASEGURUAK
- ISTRIPU ASEGURUAK
- AURREZKI PLANAK
- KOTXE ASEGURUAK
- ETA ABAR...

*inoiz baino
seguruagoak*

ELGOIBARKO IRAKASKUNTZA ERTAINAK



LANBIDE ESKOLA ☎ 74 44 80



BATXILERGO INSTITUTUA ☎ 74 02 67

**BATERATZE
BIDEAN**

EMANDAKO URRATSAK

- BARNE ARAUDI BERRI BAT
- HEZKUNTZ PROIEKTU BAT (egiten ari)
- EKINTZA OSAGARRIAK BATERA
- TUTORETZA ETA ORIENTAZIO DEPARTAMENTU BERA
- GURASOEN ESKOLA: drogomenpeketasunari eta sexu heziketari buruzko ikastaroak, e.a....

DATORREN IKASTURTERAKO ESKAINTZA

lanbide eskola

- 1 • REM I
- 2 • REM II
- 3 • **BATXILERGO BERRIAK I**
 - NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
 - HUMANITATEAK ETA GIZARTE ZIENTZIAK
 - BATXILERGO TEKNOLOGIKOA
- 4 • L.H. 2.2. (automozioa)
• L.H. 2.3. (automozioa)
• B.A.G. 2
• B.T.I. 2
• M II Txapa eta pintura
• M III Enpresen administrazioa eta gestioa

batxilergo institutua

- BBB (BUP) I
- BBB (BUP) II
- **UBI (COU)**
 - A - Zientifiko teknologikoa
 - B - Biosanitarioa
 - C - Gizarte Zientziak
 - d - Humanistiko - Zientifikoa

GIZA BALIABIDEAK



AURREMATRIKULA EGITEKO EPEA: MAIATZAREN 4TIK 18 BITARTEAN

elgoi**BARREN**

Nafarroa enparantza 2

☎ 74 41 12

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA:

Alberto Agirreazaldegia

HIZKUNTZA ARDURADUNA:

Anjel Ugarteburu

ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Iñaki Arrieta, Antton Bergara,

Edurne Bilbao, Rosa Iriondo,

Jose Inazio Sarasua

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso

Jasone Osoro

MAKETATZAILEA:

Maite Rementeria

PUBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz

ADMINISTRAZIOA:

Josune Fernandez,

M. Angeles Ortuoste

KOLABORATZAILEAK:

Irati Agirreazaldegia, Itziar

Agirregomezkorta, Ana Aizpiri,

Myriam Aldazabal, Isabel Ansola,

Nere Arostegi, Gotzon Arrieta, Pello

Arrieta, Belen Arrizabalaga, Ainara

Burgaina, Urtzi Etxabe, Asier

Etxaniz, Sugar Etxaniz, Felix

Etxeberria, Izaro Etxegibel, Enez

Ezenarro, Itziar Fernandez, Jose

Mari Galdos, Ina Garagarza,

Gotzon Garate, Amaia Gorostiza,

Alfonso Guillo, Maite Iriondo, Ekaitz

Isasi, KOKOE, Enrike Larrañaga,

Imanol Larrañaga, Haritz Leon,

Jesus Mari Makazaga, Aitor Maya,

Iñaki Odriozola, Ixa Sanchez,

Eduardo Sanz, Jose Inazio Sarasua,

Oihana Tarragual, Alain Ulazia,

Olga Unzilla, Igor Vazquez, Ana

Vila, Miryam Villasante, Alaitz

Vives, Aitor Zabaleta, Yulen

Zabaleta.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.

(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.300 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Olatuak aditzean...

Denbora asko ez dela, ezagun batekin topo egin, eta horra non, pentsarazi zidan elkarrizketa bat izan genuen.

Elgoibarko hirigintzaz ihardun genuen luzaro eta gaiarekiko nire betiko ustea, erdia ustel atera zen solasaldi haren ondorioz.

Herriaren kokagunea aparte utzirik, betidanik izan dut (ez dakit hainbesteren ahotan entzunagatik ez ote den) Elgoibar herri "itsusia" delako ustea, izan ere, oso gutxi arduratu izan gara beronen estetika zaintzeaz eta halaber, industria gunea izan bada ere, ez dut uste gauza bat bestearentzat oztopo izan daitekeenik.

Honetaz geniharduelarik, besteak, bizitzaz ikuspegi filosofikoa duten horietakoa, ohartarazi zidan, gure herriak, arazoak arazo, baduela beste askok ez bezala erdigunetik atera eta mendi-auzo ezberdinetara jotzeko aukera, zeinak, gizakiaren barrena korapildurik dagoen une horietan, etsipenari aurre egiteko bizi-irekitasuna pizten duen.

Ba omen zegoen nire lagun hori "depreak" jota eta bere hitzak gogora ekarriz ia etsiturik, alegia, gazte gehientsuenentzat hain ezagunak diren arazoak direla eta, Karakaterako bidea hartu zuenean eta bere buruarekin

haserre bailegoen, herri osoa zokoz zoko aztertu omen zuen bere hausnarketetan.

Ez zuen une hartan behinik behin herria maite, ez zituen aipaturiko zoko horiek gogoko eta ez zen orokorrean herriarekin identifikatzen, beharbada, ez zuen bere identitatea onartzen.

Esan beharra daukat, lagun honentzat funtsezkoa izan dela betidanik itsasoaren hurbiltasuna, honek eman baitio bere burua gaizki sentitu duen horietan beharrezko baretasuna eta laguntza eta beraz, une kritiko hartan, gure herriko zoko guzti horiek, itsas-uhin irudikatu zituen eta ondorioz, gure herriaren "itsusikeria" hori ez du nonbait antzematen.

Halako sentimendurik somatu ahala, joan ohi da Karakate aldera eta itsasorik gabeko gure herri honetan, olatuak entzun-sentitzen ditu.

Zuek bada, Elgoibarri itsusia baderitizozue, egizue lantzean behin bueltatxoa herria inguratzen dituen mendi-auzo horietara eta irudika... une horretan zeuen bizi-behar horrek eskatzen dizuena.

Nik neuk ere, izan dut horrelako eskarmenturik eta egia badiotsuet, funtzionatzen du.

Itziar Agirregomezkorta

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





GALDERAK

• Konportatik Andikanora doan bideak, erreka aldera protekzioren bat behar luke. Ez al zaiela hala iruditzen adituei?

Erantzuna: Hirigintza Saileko teknikariak esan digunez, aurtengo aurrekontuetan ez dago leku horretan inolako lanik egitea aurreikusita. Datorren urtean, akaso egin beharreko gauza izango da.



KEXAK

Pare bat dei jaso ditugu Leku-Ederreko lorategi eta zuhaitzekin jendeak daukan errespetu falta salatzen. Umeak zuhaitzetan gora eta behera ibiltzen omen dira adar guztiak apurtuz. Lorategiak ere inongo erreparorik gabe zapaltzen omen dira. Umeak ume direlako eta hauek zaintzen dituztenak kasurik egiten dietelako, laster dira lorategi eta zuhaitz guztiak konpontzeko premiarekin.



TXALOAK

Emakume batek deitu digu eta zera esan digu: "Udala txalotu nahi dut Giza Eskubideen Enparantzan zeuden basura kontenedoreak lekuz aldatu dituztelako". Leihora irten eta arnasa hartzerakoan demaseko aldea somatzen omen dute.

ESKUTITZAK

Nola aldatzen diren gauzak... kamarada !!

Urte mordoska pasa da Elgoibarko Batxilergo Institutuko ikasle izan nintzenetik. Aspaldian ez nion, ordea, bisitarik egin eta aste honetan, egoerak hala behartuta, garai hartan hainbat eta hainbat ordu pasa nituen etxe horretara joateko aukera izan nuen.

Institutuak, edifizioak berak, lehengo lekuan dirau, baina ez ordea, bertako giroak. Sartu bezain pronto, deskantsua garaia baino lehen hartzea pentsatu zuen ikasle taldea zegoen diskusio beroan. Ez dakit zertaz ari ziren. Errekreoko txirrinak jo eta ikasle tropela goitik behera. Ordu erdi horretan aurreko klase orduan gertaturikoa azaltzen zion batek besteari; asteburuan nor ezagutu zuen kontatzen zion hirugarrenak laugarrenari. Edukazio txarrekoa dela eta, ez nuen atentzio gehiegirik jarri beraien komentariotan.

Ahaztuta nengoelakoan, baina berehala topatu nuen behar nuen irakasle gela, lehengo lekuan zegoen. Banekien ordea, atea irekitzerakoan ez nituela "nere" izan ziren irakasle guztiak topatuko. Esan eta izan, zenbat ezagun! Haiek ere ordu erdi hau

aprobetxatu nahian zebiltzan, batek seme alaben arazoak, besteak 2D gelarekin zituen arazoak, besteak oposaketan nondik norakoaz... bakoitzak bereari eutsiz. Kezkak milaka eta era guztietakoak. Harriduraz baina lotsagabeki murgildu nintzen beraien elkarrizketan, nere sorbaldan norbaiten eskua sentitu nuen arte. Zein izango eta nire irakasleetako bat!

Dagoeneko zertara joan nintzen ahaztuta nuen, bera ikusi nuen arte. Egin beharrekoa eginda etxerako bidea hartu nuen, bain oraindik ez zait harridura aurpegia aldatu. Ez zait inporta ikasleak zertaz ari ziren, zeintzuk ziren irakasleen kexak baina bai hauek ahotan zerabilten hizkuntza. Zerbaitek behintzat, onera egin du azken urteotan, eta euskaldumon belarriek gero eta gozatu haundiagoa hartuko dute irakasle nekazekin horien lanak horrela jarraituz gero. Bejondeizuela!

I.E.

HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





Aste honetako erretratua **Itziar Juaristik** lagatakoa da. Berau 1962. urtearen bueltan ateratakoa omen da. Itziarrek esan digunez, Santa Klara ikastetxean zebiltzanak dira erretratuan azaltzen direnak. Sasoi hartan ere eskursioak egiten omen zituzten eta erretratua Morkaikora egindako mendi irteera batean ateratakoa omen da.

Ikus dezagun zeintzuk diren tenisean jolastera

Morkaikora joan ziren neskatxa hauek:

Ezkerretik eskumara, tente: **Mertxe Artetxe, Isabel Etxaniz, Maite Vitores, Mari Karmen Aizpirtarte, Kontxi Juaristi, Begoña Iriondo, Maria Jesus Ibañez, Alitxu Bilbao, Txaro Etxeberria eta Begoña Ortueta.**

Erdian: **Garbiñe Mujika, Maria Elena Ansola, Amaia Ribero, Miren Juaristi eta Rosarito San Martin.**

ARAZOAK ZURE AHOTSAREKIN?

Landu ezazu!

Polipoek, noduloek, ahotsaren erabilera okerrak, etab...

ERAGINDAKO RONKERAK

ANGELA ZABALETA AIZPITARTE

KANTU IRAKASLEA

DEITU ☎ 74 15 56 - 11 03 51



ANCHUSTEGUI S.a

ZERAMIKAK

Erakusketa eta bulegoa:

Antonio Arrillaga, 6-8

behea

83 Postakutxa

Tel. 74 33 44 - 74 06 92

Fax 74 37 11


Biltegia:

Arregitorre, 10 - 14 behea

Tel. 74 20 38 - 74 23 71

20870 - ELGOIBAR

Gipuzkoa



MEKANOSA

Errosario 30

tel: 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

Ortueta

ZAPATAK ETA POLTSAK

San Frantzisko 2 - ☎ 74 04 95 - ELGOIBAR

Ondare historiko eta kulturala berreskuratzen

Bazen garai bat gure herriko bailarak errotaz josita zeudena. Teknologia modernoak eta errentagarritasun eskasak istera behartu zituen hainbat eta hainbat. Beste askok gaur arte iraun dute, baina 1988. urteko uholdeek eragindako kalteek istera derrigortu edota egoera benetan eskasean laga zituen.



■ ■ Gelatxorrota baserriko errotak ufalen ostean laga zion funtzionatzeari.

Elgoibarko Gelatxorrota eta Apraiz errotak, Mendaroko Lasalde dorretxea eta Lasturereko San Nikolas errotak zahar-berritzeko proiektu bat aurkeztu berri du DEBEMENek, Deba Beheko Mendi eta Nekazaritza elkarteak, Gipuzkoako Foru Aldundian. Elgoibarko Udaleko aparejadoreak Elgoibarko erroten berritze lanen aurrekontua egin eta gero, DEBEMENek beharrezko dokumentazio guztiarekin eskararak Aldundian aurkeztu ditu, erakunde honek berritze lanetan partehartuko duen ala ez erabaki dezan. Hala balitz, erroten berritze lanen finantzamenduan hartuko luke parte Aldundiak. Beste zatia, seguraski, jabeak ordaindu beharko luke. Apraiz errotako jabea den Jose Juan Barrenetxea eta

Gelatxorrotako Justo Arriola, ordea, kezkatu dira Aldundiak laguntzea erabakiko balu, horrek ekar lezakeen gastuak direla eta. "Berritze lanak norberak eginda -dio Apraiz errotako Juan Josek- beti da merkeago, horrelako erakunde bat sartzen denean, gauzak hobeto egiten dira baina poltsikotik ordaindu beharrekoa ere, gehiago da".

Proiektua aurkeztu baino ez dute egin, eta momentuz behintzat, Aldundiaren erantzunaren zain egon beharko.

GELATXORROTA

Gelasoro Errota, Gelatxorrota ezagunago, 1988. urtera arte egon zen funtzionamenduan, uda horretako ufala gertatu zen arte. Ordu arte, milaka anega artirin eho izan dira Gelatxorrotan,

ingurukoek ere bertara jotzen baitzuten artoa ehotzera. Uholdeak geroztik baserriarren artean ezaguna zen Gelatxorrotako artirina egiteari laga zion Justok. Baserriarrek behin eta berriro esaten zioten errota martxan jartzeko, eta berak ere barrutik zeukan kapritxoa zen. Etxean egindako taloak modukorik ez dago nonbait.

Gelatxorrotako errotako harriak San Lorentzo erreka-ko ur indarrarekin xehetzen zituen artaleak. Elektraindarra jarri aurretik, ur indarrari esker funtzionatzen zuen turbina batetik lortzen zuten argi indarra.

Gelatxorrotako errotak ufalak jasan behar izan dituen arren, funtsean mekanismo guztia nahiko ondo kontserbatzen da. Harriak eta aintzinateko pisu bat ere egoera nahiko onean daude.

Errotak berritzeko eskaerak Aldundian daude dagoeneko. Orain erantzunaren zain egon beharko.

Berritu beharrekoa, uraren kanala, depositoa edo urtegia eta errotaren egurrezko egitura dira.

Behin berritu eta funtzionamenduan jarri eta gero, euskal ondare historikoaren museoaren parte izango dira Gelatxorrota eta Apraizeko errota.

APRAIZ ERROTA

Jose Juan Barrenetxea da San Antolin auzoan dagoen Apraiz errotaren gaur egungo jabea. Errotak 1988ko ufalaren tratu txarra jasan zuen baina beti egon izan da martxan. Errotak gutxitu zirenean bailarakoek bertan ehotzen zituzten aleak, eta askotan kanpotarrak ere etortzen ziren (Eibartik, Lasturretik eta inoiz Bizkaia aldetik ere bai). Errotaren beheko aldeak, hau da, arkuia duen zatiak, bere horretan jarraitzen du baina goiko partea zeharo mugitu zuen uholdeak, eta erortzeko arriskua dauka. Goiko zatia da berritu beharra dagoena. Zati hau egurrezkoa omen zen aspaldian, baina denborarekin



AZKUE

■ ■ Apraizeko errotaren makineria ondo kontserbatzen da. Gaurregun martxan dago.

argamasaz estaltzen joan ziren, ormetako zirrikituetatik nonbait haizea sartzen zelako.

Errota inguruan olak egon omen ziren. Baina errotaren sorrera urtea olak baino lehenagokoa dela ziurtatu digu Jose Juanek. Arkuaren partea olak baino lehenagokoa da, eta goiko partea seguruenek, olen garaikoa (1741-1769 urteen bitartean berritu omen zen).

Gelatxorrota eta Apraiz errotaz gain, Mendaroko dorretxea eta Lasturreko bi errota berrituko dira.

Jose Juan Barrenetxeari, kapritxo modura bada ere, errota kontserbatzea gustatuko litzaioke, museo antzeko zerbait egiteko.

LASALDE DORRETXEA ETA LASTURKO ERROTAK

Mendaroko Lasalde dorretxea berritzekotan dagoen beste eraikuntza bat da. Juan Loiola da jabea eta ondare historiko-artistikoa izendatutako etxea da. Dorretxea ertarokoa da nonbait. Dena dela, etxeak erreforma ugari izan ditu, apurtu ahala konpondu egin baita. Aurten teilatua konpontzea nahiko lueketela esan digu Juan Loiolak eta horretarako Aldundiaren laguntza izango balute, hobe baino hobeto.

Azkenik, Lasturko San Nikolaseko bi errota, Lastur-Errota-Goikoa eta Lastur-Errota-Behekoa berritzea aurrakusten du DEBEMEN eta Deba eta Mendaroko Udalek bultzatzen duten "Izarraitz Bizirik" izeneko proiektuak. Asmoa, zahartutako azpiegitura berritu eta helburu kulturalako gunehurtzea litzateke.



■ ■ Lasalde dorretxea aspaldikoa da. Ondare historiko-artistikoa izendatu zuten.

INTERIORES

- SUKALDEAK ETA BAINU ALTZARIAK
- ATE TOLESGARRIAK
- BARRUKO ARMAIRUAK
- DEKORAZIO GAIAK

Tel: 74 40 55 - 74 40 19.
Errosario 15 Behea.

Andoni Tellabide S.L.

ITURGINTZA

- Berogailuak
- Suteen aurkako instalakuntzak
- Gas instalakuntzak

Azpilgoeta 19.
☎ 75 50 62 MENDARO

**I
L
E
A
P
A
I
N
D
E
G
I
A**

FADEK

SOLARIUM

Errosario Kalea, 35 behe

☎ 74 26 92 Elgoibar

Norena da errepidea?

Zenbat alditan egin ote diogun geure buruari galdera hau, beti erantzun berdina jasotzeko: GUZTIONA.

Baina ez da horren erraza. Oraindik ere badira hamaika ezin ulertu txirrindularien eta gidarien artean. Azken finean denok egiten ditugu erruak arauak apurtuz. Tamalez, gidariek maizago egiten dituzte eta ondorioak latzagoak izaten dira kasu gehienetan.

Har dezagun adibide simple bat: traktore bat ikusiz gero, nahiz eta txirrindua baino polikiago joan, beti errespetatzen dute, edota kasurik okerranean, adelantatzerakoan prekauzio guztiak hartzen dituzte. Jar dezagun traktorearen orde txirrindulari bat: ez da gauza bera gertatzen eta betiko aitzakia jartzen da gainera: DENBORARA.

Uda dator eta orain, bai txirrindulari eta bai gidari kopurua, erabat handitu da. Horregatik dei bat egin nahi nieke biei, irtenbidea erraza baita: ELKAR ERRESPETATZEA. Txirrindulariei esango nieke, ilaran joateko, (neu ere txirrindularia iza-

nik) ez garelako konturatzen askotan oztopo izan gaitzkeela. Gidariei esan, hondartzara bost minutu lehenago iristeagatik ez duela merezi txirrindulari bat bide ondora botatzeak. Txirrindulariek beren karrila ez eduki arren (hori litzateke irtenbiderik onena), errepidean ibiltzeko eskubide berbera dute.

Amaitzeko esan nahi nuke, hemen ere, denean bezala, klaseak daudela:

Zein gidari ez litzateke geldituko hainbat denboran, INDURAIN ikusteko balitz? Nire ustez hitz klabea hau da: ERRESPETUA.



JABIER SAN MARTIN

ASESORIA

GO&R

AHOLKULARITZA

- . KONTABILITATEA
- . AHOLKULARITZA FISKALA
- . LAN AHOLKULARITZA
- . ALLIANZ ERCOS ASEGURUAK
- . MULTINACIONAL ASEGURADORA ASEGURUAK

San Bartolome 1 behe. Tel: 74 26 74- 74 02 34. Fax: 74 21 29



Lehenengo Jaunartzeak

- TARTA BEREZIAK
- ENKARGUAK HARTZEN DITUGU

San Frantzisko, 49 behe. ☎ 74 28 75 ELGOIBAR

Zer iritzi duzu errepidean dabiltzan txirrindulariez?



EDURNE ALBERDI

23 urte, langabetua

Taldian gaizki juten dia. Banan banan jun biharko zian, ilaran. Batzuetan karreteria eurena dala pentsatzen dabe. Kotxiek ere ez dabe errespetatzen.



J. IGNACIO ORTIZ DE URBINA

32 urte, ekonomista

Zirkuitu bereziak egon beharko lirateke. Txirrindulariak beste kotxe bat bezala dira eta pasatzera-koan kotxeekin bezala egin beharko genuke.



CONCHI DOMARCO

34 urte, etxekoandrea

Besterik ezean errepidetik joaten dira estuak izan arren. Beraiek diote taldean joaten direla gidariak ikus ditzaten. Nik uste ilaran joan behar dutela.



IDOIA AZPILIKUETA

26 urte, administraria


Errespetua behar da gidarien eta txirrindularien artean. Bizikletan, kotxe-koen erruak ikusten ditugu eta kotxean goazean, txirrindularien erruak.



JAIME EGAÑA

32 urte, langabetua

Gidariak aspaldian gehiago errespetatzen duten arren, arriskutsua da. Orokorrean txirrindulariak ondo ibiltzen dira baina batzuk ez dira arriskuaz ohartzen.



JOSE ANTONIO ZUAZUBIZKAR

64 urte, Udaltzaingoko sargentoa

Bakoitza bere lekutik ibili bihar dala, hortxe dao problema. Taldian junda gaizki, filan jun ezkeron ondo, baina hala ere arriskutsua da.

Arantzazu edergintza

I SOLARIUMA

I Depilazioak hotz eta beroan

I Gorputz tratamenduak

I Masaia terapeutikoak

I Aurpegirako azido glycolicoz tratamenduak

-Akne

-Simurrak

-Mantxa ilunak

San Inazio, 4. ☎ 74 27 25 ELGOIBAR

RAIKO
KAFETEGIA
74 42 65

■ Morkaikok Pagoetara irteera antolatu du

Morkaikok Pagoetara irteera antolatu du hilaren 15erako. Ohi denez, bazkideentzako prezioa 800 pezetakoa izango da eta bazkide ez direnentzako, 1000 pezeta. Irteera Plazatik izango da, goizeko 9etan. Honez gain hilaren 29an Elgoibarko mendi itzulia burutuko da, ekainaren 1ean eta 2an diapositiba emanaldia, 5ean finalista eguna eta 11ean Euskadiko Eskalada txapelketa eta dantza eskalada saioa.

■ Margo lehiaketa Placentxin

Soraluzeko Udaleko Kultura eta Euskara batzordeek Ageriko II. Margo Lehiaketa antolatu dute hil honen 15erako. Izena emateko Soraluzeko Udaleko zinegotzi gelara zuzendu beharko da lehiaketa egunean bertan. Parte hartzaileek lana burutzeko beharrezkoak dituzten tresnak eraman beharko dituzte. Sariak 14 urtetik beherako mailan eta 14tik gorako mailan banatuko dira.

■ Tiro txapelketa

La Union ehiza eta arrantza elkarteak antolatutako apirilaren 30eko lehen tiro saioko irabazlea Ramon Agirregomezkorta izan da. *La Unione*ko bazkide honek 25 plateretik 25 apurtu zituen eta beraz, erregulartasunaren sailkapeneko buru da. Datozen tiraldiak hilaren 7an eta 14an izango dira. Azken egunean, sailkapen orokorreko sari banaketa egingo da. Txapelketa arratsaldeko 3etan hasiko da San Pedron.

■ Txankakuaren asanblada

Txankakua elkarteak, Elgoibarko Merkatari eta Zerbitzarien Elkarteak, bazkideen urteko asanblada egingo du Kultur Etxean hil honen 11n, asteazkena. Asanbladara joateko lehen deialdia arratsaldeko 8,10erako egin da, bigarren deialdia 8,30etan izango delarik. Asanbladaren ostean, lagun arteko afaria izango dute *Txarriduna* jatetxean.



Ruper Ordorika kantari izan zen joan den ostiralean DEBABE Udal Euskaltegien Mankomunitateak antolatuta. Ruper Ordorikaren orkestrazioan laguntzen izan ziren Tapia soinu-jolea eta Oskorri taldeko Bixente Martinez kitarrajolea. Hirukoak baladak jo zituen, kantu erromantiko eta narratiboak, guztiak mendebaldeko euskalkia den bizkaieran emanak. Saioa Udal Euskaltegiak Aldundiaren laguntzaz antolatzen dituen ikasleentzako ekintzen barruan kokatzen da.



Ikasle greziar hauek Erreminta Makinaren Institutua bisitatzeko PETRA izeneko proiektuaren barruan. Talde hau Tesalonikako Evosmoseko Lizeo Teknikoko bost ikasle eta informatikako irakasle batez osatua dago. Bisitaldia hiru astez luzatuko da. Epe honetan Euskal Herriko ikastetxe eta industria ezberdinak ezagutuko dituzte, tartean, Zamudioko parke teknologikoa. Ikasleek diseinu grafikoan software-aren erabilerari buruzko klaseak jasoko dituzte eta bisitaldiari buruzko txosten bat burutuko dute. Ikasleen elkartrukaketa honen barruan, IMHko ikasle talde bat Greziara joango da datorren udazkenean.

Papera eta kartoia jasotzeko kontenedoreak jarriko dituzte



Deba Beheko Mankomunitateak papera eta kartoia biltzeko programa pilotu bat jarriko du martxan hilabete honetan gure herrian. Dagoeneko Mankomunitateak aurkeztu ditu bailarako Udaletxeetan papera, kartoia eta eguneroko garbitasunari buruzko ordenantzak eta alderdi politikoek maiatzaren 13a izango dute alegazioak aurkezteko azken eguna.

Programa pilotu honetarako Elgoibar aukeratu izanak badu bere fundamentua: batetik, Mankomunitateak herritarren artean egindako inkestaren arabera, elgoibartar gehienok kontenedoreak jartzearen

aldekoak gara. Datuek diotenez, biztanleriaren %92a erabilitako materialeak berreskuratzearen aldekoak dira eta %97ak, laguntzeko prest dagoela dio. Bestetik, 800 pertsona bakoitzeko kontenedore bana, ratio aiprosena omen da Mankomunitatearen ustetan, eta Elgoibarrek, hain zuzen, ratio hori dauka. Honen arabera, 2000 tona parper eta kartoi jasoko litzateke urtero.

Bilketa behar adinako efektiboa izateko, Mankomunitateak herritar guztion laguntza eskatzen du. Programak arrakasta izango balu, Deba Behe osora heda liteke.

Gorostiza tabernako 37. Mus Txapelketa

Gorostiza tabernako XXXVII. mus txapelketako finala jokatu zen joan den ostiralean Carlos Mugerza eta Joseba Trueba elgoibartarren eta Eibarko Gorostegi anaien artean. Bikote elgoibartarra erraz gailendu zitzaion bikote eibartarrari. Mugerza eta Truebak 5 eta Oeko emaitzaz irabazi zuten, eibartarrek ez baitzuten errege bat bera ere ikusi. Bukaeran sariak banatu ziren. Irabazleek "Gorostiza taberna"ko kopa jaso zuten eta irabazle ordeen "Julito Bueno" ardo sorta.



■ Eskolarteko jokuak azken fasean

Larunbat honetan, hilak 7, eskolarteko jokuetako Gipuzkoako txapelketako final laurdenei dagozkien partiduak jokatuko dira saskibaloia eta areto futboleant. Saskibaloian, infantil mutilen mailan, Ikasabantolome taldeak Donostiako La Salle ikastetxearen aurka jokatuko du Legazpin goizeko 9etatik aurrera. Alebinetan Ikas Inter-ko mutikoen, goizeko 9etan hauek ere, Azpeitiarren aurka jokatuko dute Zumarragan. Alebinetan Pilar C-ko neskek Beasaindarrak izango dituzte lehiakide. Partida goizeko 10,30etan izango da Irungo kiroldegian. Areta futboleant final laurdenak talde hauek jokatuko dituzte: alebin mutiletan Ikas Trol taldeak, alebin nesketan Pilar B taldeak eta infantil mutiletan Ikas Artaburuak izenekoak.

■ Atletismoa kolokan

Hilaren 10ean, asteartea, atletismoaren egoera larriari buruz hitz egiteko bilera bat burutuko da. Ego-Tokiko atletismo klubareko arduradunek laguntza eskatu dute klubaren martxa onerako. Bilerara dei egiten zaie OHoko ikastetxetako zuzendariari, atletismoan diharduten haurren gurasoei, korrikalariei eta gaiarekin sentsibilizatuta dagoen orori. Bilerara arratsaldeko 8etan izango da Kultur Etxean.

Jesus Mari Gabilondo:

"Brasildarren bizi-pozak sorgindu ninduen"

49 urte ditu elgoibartar honek. Zer kontaturik badu Jesus Mari Gabilondok; izan ere, orain dela 21 urtetik Hego Amerikako parajeetan bizi baita. Sanba, Karnabalak, Amazonas-a, "Pan de

azucar" ezaguna... Brasilek badu non ibilirik, zer ikusirik. Bertaraino joaterik ez dugunez, kontatzen digunarekin konformatuko gara, une batez hitzak irudi bihurtuz.

-Nolatan joan zinen?

- Perito Industrial ikasketak egin eta zazpi urtez lanian eman eta gero tunel ilun bat baino ez nuen ikusten, argirik ez. Lana bazauan baina batzuentzako. Ejerzito guztietan dago general bat, hiru koronel, bost kapitain eta mila soldadu. Ni soldadu bat nintzen eta ez nintzen konformatzen.

- Zergatik Brasil?

- Brasilek teknikoak inportatzen zituen. Azterketa bat egin zidaten Madrilan, onartu ninduten eta eskaintza benetan tentagarria eskaini: urtebeteko kontratua, gastu guztiak ordainduta eta hilero 28.000 ptako soldata; hemen 17.000 irabazten nituen. Nire betebeharrak bakarra lan entrebistatara aurkeztea zen. Elkarrizketa guzti haien artean nik erabakitzen nuen non nahi nuen lan egitea.

- Zer izan zen gogorrena?

- Pobreziak inpresionatu ninduen batez ere. Gogorrena, noski, familia eta lagunak uztea da, beraiengandik banatzea.

- Eta zerk sorgindu zintuen?

- Brasildarrek duten bizi poza, bizitzeko gogoia, dudarape. Behar-



"Esplotatu gabe dagoen paradisua da Brasil"

bada nik asko irakatsi nien mekanika eta industriari buruz baina beraiek gauza garrantzitsuago bat irakatsi zidaten niri, bizitzen.

- Sao Paolon bizi zara, nolakoa da?

- Sao Paulon edo Los Angeles-en bizitziak ez dauka diferentzia haundirik, hiri bat da eta ez dauka ezaugarri brasildar bereizgarriarik. Hiri handiek unibertsalizaziorantz jotzen dute. Herri txikiak ezberdinak dira, bakoitzak bere izaera berezia mantentzen du

- Zer dute Rio-ko karnabalek?

- Ikusgarriak izaten dira, jai nazionala da. Gainera karnabalak direnean Brasilen uda da, karnabalen ostean ikasturte berria hasten da, oporren bukera ... hemengo San Bartolomeen antzera. Kalean bizi dituzte jaiak, urte osoa ematen dute dena prestatzen, gero a tope disfrutatu ahal izateko.

- Sanba dantzatzeko ikasi al duzu?

- Bai, oso polita da. Musikarekin oso lotuta

dagoen herrialde bat da, nahiago dute musika eta erritmoa, literatura, letra baino. Gorputzaren bidez adieraztea atsegin dute.

- Paradisua Brasilen al dago?

- Paradisu bat da, oraindik esplotatu gabe dagoena. Goitik behera ikusgarria da, kontrastez bete dago, kolore anitzak, paraje ezberdinak, desertua, Amazonas-a... Amazonas-a itsaso erraldoi berde bat da. Bertan, oraindik ere kontaktatu gabeko tribuak bizi dira.

- Euskaldunon ezaugarri bat eta brasildarren beste bat?

- Nire semeak euskaldunak bezalako nobleak eta brasildarrak bezain tolerantetarak badira, erduzko hiritarrak izango dira.

- Ikusgarriak al dira Brasilgo neska/mutilak?

- Bai. Han hemen baino gehiago arduratzen dira fisikoaz. Grekoek gauzak "zatar" edo "politik" zirela esaten zuten, katolikoek, ordea, "ona" edo "txarra". Brasildarrek, oso katolikoak izan arren, zentzu horretan grekoagoak direla esango nuke. Garrantzi izugarria ematen diote itxura fisikoari, neskek eta mutilek.

FERIASALTSAN

Apirilak ez zuen euririk bota ferian

Eguerdi partera urreratu ginen feriara. Ez zen jendetza handirik ikusten, ordua ez zelako ikaragarri aproposa eta eguraldia bera ere egokiagoa zelako soroetako belarra mozteko. Apirilean, ohizkoa denez, euria barra barra egin badu ere, feria eguna oskarbi hasi eta oskarbi ilundu zen. Arratsalde partera giroa epeldu zen, dexenteko animazioa nabari zen eta.

Hurbildu ziren baserritarrek aukera ugari izan zuten apirileko azokan. Ganadu aldetik ugari, zaldirik ere ikusi genuen eta makinariari dagokionean,

bazegoen non-zer hautatu. Maiatza, beste gauza askoren artean, baserritarren hilabetea dela esan daiteke 15ean San Isidro eguna baita. Inkestatxo bat egin genuen ea San Isidro ospatzen duten galdetuz eta era guztietako erantzunak jaso genituen. Horien arteko dexentek ezetza eman ziguten, eurak baserritik baino gehiago kaleko lanetik bizi direla azalduz eta maiatzaren 15a beraientzat egun berezia ez dela gaineratuz.

Baserritar izateko baserriko lanetik bizi behar al da, ba?



PROTAGONISTA



Fernando Pedernales

Bermeokoa

- **Zer saltzen duzu?** - Behixak okelatarako. Esnetarako behixak oin ez dia saltzen apenas.
- **Zer arraza daukazu?** - Nik kruzadak ditxut, suizak eta holakuak.
- **Eta zein da onena?** - Nereztat diru gehixen ixten dabana da.
- **Eskaera handiena?** - Suiza, pirenaikuak, blonda, segun.
- **Prezio aldetik?** - 50.000 pta inguru.
- **Elgoibar merkatu ona al da?** - Ondo saltzen dia, kobrau nekez.
- **Nork erosten ditu, gizonak ala emakumiak?** - Gizonak normalian, bera da tratuak itxen dabazena baserrixan. Andria badator izaten da frakak berak daukazelako.
- **Haragiari euskal labela jarriko baliote?** - Zaila izango da, ezin da gaur egunian konpetidu granjekin, eurek askoz merkio saltzen dabe eta gehixo begiratzen diogu preziuari kalidiari baino.
- **Noiz dago behi bat sa-soian?** - 3/4 urtekin.
- **Eta noiz da zaharra?** - Segun ze klase, baina aguantatzen dabe 12 urte inguru.
- **Nola lotzen dira pisua eta prezioa?** - Zenbat eta kilo gehixo prezioa hobia da behixetan, txaletan aldrebes.

Ospatzen al duzu San Isidro eguna?



Maiatzaren 15ean San Isidro eguna ospatzen dugu baserriarren artean. Izan ere, beste edonork bezala geure esku-bidea daukagu gure zaindariaren egun eder hori ospatzeko, baserrian egun gutxi izaten baitira hartzeoak.

Haseran Elgoibarren bertan ospatzen zen San Isidro eguna, bazkaria Alkorta jatetxean izaten zalarik eta bertan bertsolari eta umore onik ez zen faltatzen.

1.980. urtean Arrateko Amaren inguruan hasi ziran Eibarko eta Elgoibarko baserriarrak jai hau ospatzen. Geroztik Soraluze eta Mendaro ospakizun honetara elkartu ziren.

1.992. urtean eta DEBEMEN Elkartearekin ezkerotik, Deba Beheko bailarako sei herriak elkartzen dira, Isidro Deunaren jai ospatzeko, Deba eta Mutriku aurreko lau herriekin bat eginez.

Aurten ere Deba Beheko sei herriek jai hau ospatuko dugu eta horretarako maiatzaren 14ean (larunbata) eta 15ean (igandea, San Isidro eguna) ospakizun desberdinak egitarautu dira.

San Isidro bezperan eta Kantabria jatetxean, bertso eta kantu afari bat ospatuko da bertan Duo Plaentxi eta Narbaiza, Larrañaga eta Agurtzane egongo direlarik. Afari honetarako txartelak DEBEMEN elkartearen bulegoan, Elgoibarren, eta Balkoi eta Sagarbitza taberrietan, Eibarren, 2.500 ptatan topa daitezke.

Maiatzaren 15ean, San Isidro egunean, ospakizun ugari aurkituko ditugu Arratera joaten bagara. Goizeko 11etan Meza, bertsolari eta trikitilariekin, jarraian Getariko txakolina eta Bailarako gazta dastatzeko aukera izango dugu. Eguerdian aldean harrijasotzaileak egongo dira eta bukatutako anaiarteko bazkaria Kantabria jatetxean. Bazkal ostean sei herrietako Aitonamona nagusienei opariak banatuko zaizkie eta, mahaikideen artean sari baten zozketa egingo da. Arratsaldean Deba Beheko Bailarako partaideekin Idi Demak izango dira Arrateko probalekuan.

Bertara hurbiltzeko, San Isidro egunean Elgoibartik autobus berezi bat egongo da goizeko 10,15etan San Migeleko kruzian. Iluntzean bueltatzeko ere izango da.

AGUSTIN IRUSTA
Baserriarren zinegotzia



Ander Lazarobaster, 47 urte.
Torre baserria, Mendaro

Ez, nik ez, tailarrian lan eitzen dot eta. Gainera nola ez gera hain baserriarrak ez dauka egun honek holako esanahi berezi bat neretzako.

Alberto Urkiaga, 42 urte.
Untzeta baserria, Eibar

Lehen bai baina oin aspaldixan ez. Garai batian egun osua jai hartzen gendun. Oin inoiz juten naiz Arratera idi-probak ikustera baina...



Joseba Iriando, 21 urte.
Panparron baserria, San Roke

Bai, ahal doguna behintzat. Ez da beste egun bat bezelakua, espeziala da neretzat. Guk kuadrilla guztiak ospatzen dou alkarrekin, Arraten edo herrixan.

Celestino Oruesagasti, 43 urte.
Argate baserria, Soraluze

Nik ez. Lantegixan eitzen dot lan, akaso baserriar bizi diazenak ospatuko dabe, baina nik ez. Baserriarra konsideratzen naiz, baina...



Pedro Bollar, 72 urte.
Gelatxo baserria, S. Lorentzo

Beti urtero, urte pila batian. Arratera juten gera, han bazkaldu, probak ikusi... Ondo dago geuk ere izatia gure eguna, jai polita izaten da.

SAN MIGEL AUZOA

Romanones-eko Konteak lurra koparitu zizkien San Migeleko bizilagunei. Bertan eliza bat altxatzea erabaki zuten. Auzokide guztiek hartu zuten parte, baserritar bakoitzak hainbeste harri, edo egur edo bestelako materiala jarri eta euren eskuz, harriz harri, gaur egun ezagutzen dugun eliza eraiki zuten.

Markinako bideak badu fama txarrik, errebuelta asko eta itxiak. Hala ere, hori ez da sekula eragozpen bat izan San Migeldarrentzat, ez eta bertako jaietara igotzen diren elgoibartar guztientzat ere. Badute erdi bizkaitar erdi



San Migeleko frontoi berria eta eliza.

gipuzkoar hauek jairako zaletasunik. Ikustea besterik ez dago, jaiak ere binaka egiten baitituzte, hau da, bi jai ospatzen dituzte. Batetik, San Antonio, baserritarren eguna, esango genuke. Ekainaren 13an izan ohi da eta bazkari herriko baten bueltan bailarako asko eta asko biltzen

dira. Irailaren 29an, berriz, San Migel

Bestalde, mina batzuek ere aurkitu dituzte San Migel inguruan, bai eta kobazulo bat ere. Leizarpe espeleologia taldea hasi da ikertzen eta, agian, behar bezala egokituko dute jendeak ere ikus dezan.

JAKITEKOAK

■ **BASERRIAK:** Aizti, Aizti Txiki, Altxate, Altxate Etxetxo, Ballegoiti, Ballibar, Ballibar Zar, Belartondo, Belarreta, Belarreta Berri, Belaustegi, Berdezkunde, Bertoso, Bertoso Berri, Bigoin, Borrajen, Erreizabal, Erreketa, Errezabal, Errotatxo Goikoa, Errotatxo Bekoa, Metalkua, Garate, Gure Txokoa, Irunaso, Izkuntza, Kaskante, Kaskante Zar, Lerun Nagusi, Mugertza, Oa Nagusi, Oa Txiki, Olazarra, Orue, Orue Gain, Orube Azpi, Sagarra, Soarte, Talaya, Urkarregi Kurutze, Urtia, Zeleta, Ziarda Erdi, Ziarda Etxeberri, Ziarda Nagusi, Ziarda Txiki eta Zumeta.

■ **JAIK:** Ekainak 13 (San Antonio) eta Irailak 29 (San Migel).

AUZOETAKO ALKATEEKIN BERBETAN

Jabier Arrizabalaga

"Baserritarra izateko bokazioa behar da"

.- **Hurrengo pausua?**

- Lokal sozial bat sortzen ari gara. Horrek auzo giro bat eta mugimendu bat sortuko du, hitzaldiak emango dira, bilerak, haur, gazte, gizon eta emakumezkoak joan ahal izango dira. Konpetidu in bihar da danian eta horrelako zeozer behar da, baserri mailan nola ibili bihar geran ikusteko, informazioa emateko.

.- **Oso bertsozaleak zarete, ez?**

- Bai, oso. Aurten, Elgoibarko Izarrak antolatzen dituen bertso afarien barruan guk ere ekaina-

ren 18rako antolatu dogu jaialdi bat.

.- **Gazteentzat ba al da etorkizunik baserrian?**

- Ondiok ere kale aldera botatzen dabe, batzuek langabezixa dauala eta hasi dia agroturismo eta holakuetan pentsatzen baina baserritik bakarrik bizitzia oso zaila da. Baserritar izateko ere bokazioa bihar da.

.- **Markinakoekin zer moduz?**

- Oso ondo. Gu baino hobeto gure gurasuak, lehen egunero egoten zan autobusa Elgoibartik Markinara eta ostegun batian

Elgoibarrera bajatzen zian eta beste batian Markinara. Tratu berdina zaken bixekin.

.- **Nola antolazen zarete San Migelen?**

- Alkatea dago batetik. Bestetik, mayordomoa elizako garbitasunaz, diru kontuetaz arduratzen da eta urte guztian in dian gauzen berri ere eman behar dau San Migeletan eitxen dan elizkizun batian, diru asuntuak eta holakuak... Horrez gain, bi batzorde daude, bata frontoiaz arduratzen da eta bestea jaiak antolatzaz.



.- **Kostata baina azkenean badaukazue frontoia**

- Oin dala 10 urte hasi ginan frontoi berrixan proiektuarekin, poliki-poliki ibili gera eta danon artian altxatu dogu. Pena merezi izan dau; oin edozein jaialdi antolatzeko ere badakagu lekua, egualdixan beldurrik euki gabe.

Jose Antonio Erkiaga :

"Idixak deportistak moduan dia"



San Migeleko Soarte baserrian jaio eta hantxe bizi da. Gaur egun apenas gelditzen dira baserritik bizi diren gazteak, baina Jose Antoniok beti izan du gustuko ganadua. Berak esan bezela "diru askorik ematen ez daban arren, gustuko lana izatiak badaka konpentsaziorik". Abereekin lanean eta haiekin baita kirolean ere. Plazarik-plaza ibiltzen da idiekin batera eta bestera, Jose Antonio idi-probalaria da eta.

- **Zer da idi-proba?** - Idi pareja bat ordu erdiko epe batian harri bati tiraka ibiltzen da. Harrixak 2.000 kilo ingurukoak izaten dia. Idixak, berriz, 1100 parejako, 550 bakoitzak. Denbora horretan zenbat eta ultza (buelta) gehixo eman, hobe.

- **Zenbat gutxi-gora behera?**

- Ona bada 55 inguru, baina eragin haundixa daka egurdixak. Hego haizia ona izaten da, lurra lehorra egoten da eta. Izotza ere oso ona izaten da; onena, hartara harrixa ere errazago dixe eta.

- **Nola banatzen da proba egun bat?** - Goizeko bederatzietan idixak pisatzen dia, gero jaten ematen jakue eta arratsaldeko bostak arte deskantsatzen egoten dia.

- **Nola hasi zinen karretero moduan?** - Etxian ikusitxa aitxari eta osabari. Eureri gustatzen jakuen. Neu ere hasi nitzan, gustua hartu nion eta halaxe segitxu naban.

- **Entrenatu beharrik egoten al da?** - Idixak deportistak moduan dia, gutxi gora behera. Haiek ere, jaten eman ondo eta egunian hiru ordu laurden edo ordu batian entrenatu bihar dia. Probia egon baino egun batzuek aurretik deskantsatu egin bihar debe, jana ere kendu itxen jakue pisua bajatzeko, pisuan maximotik pasatzen badia ezin dabe proban parte hartu eta.

- **Zer jaten dute?** - Egunian lau-

bost kilo baba, artua, olua... Holaxe egoten dia, dieta baten moduan, zela ez daben pisurik hartu bihar...

- **Idiekin esku gogorra ala hitz goxoak?** - Segun zelako idixa dan; batzuek gogor hartu bihar dabe, batzuek idi trankilauak dia eta akulua bihar debe, beste batzuek, enkanbio, nerbiosuauak dia eta haiek, logikoki, gitxio... Hortxe dao aldia.

- **Probatarako bakarrik al dira animalioak?** - Normalian bai. Gaur egunian ez dia apenas erabiltzen idixak lanerako, generalian sororako.

- **Zein da adinik aproposena?** - Probetarako sei zazpi urte inguruan hasita, hortik beherakuak gaztiak dia. Gero segun eta ze kalidade dakan idixak urte bat edo gehixao ibiltzen da probatan.

- **Idi-bikotearen arabera ere ba al dago eraginik?** - Bai, idixak ere euren artian konpenetrauta egon behar dia. Alde haundixa dao, eta hori igartzen da. Batzuetan ondo lan ein ez eta bikotia aldatzian demaseko kanbixua ematen da.

- **Ez al dizute inoiz animaliak esplotatzea dela esan?** - Batzuetan bai. Nik usten det deportistak moduan diala. Etxian egoten dia, deskantsatu itxen debe, entrenatu, ondo jan... Ziklista bat ere hola ibiltzen da, edo harrijasotzaile bat. Baina jendiak ez dau hola ikusten.

BABAK

■ **SORRERA:** Badirudi ale lodiak Afrikan duela bere jatorria. Murzian, adibidez, baba bilduta datorren leka ere jaten omen dute.

■ **FAMILIA:** Leguminosae

■ **IZEN ZIENTIFIKOA:** Vicia Faba L.

■ **KLIMA:** Sikutea ez zaio bat ere komeni, batez ere loratzen eta leka gorpuzten ari denean.

■ **ZOLUA:** Lokatza egoten den lurra onuragarria da, ura primeran gordetzen baitu. Airean dagoen nitrogenoa hartu eta mantentzen du, ongarri ezin hobea-go bat izanik.


■ **EREINTZA:** Urrian edo azafoan landatzen da maiatza aldera jasoz.

■ **LABORANTZA ELKARKIDEAK:** apioa, letxuga, artua, patata, pepinoa...



Jesus Gomez

Kristal garbitzailea



● **Zer garbitzen duzu?**

▶ Kristalak orokorrean, eskapareak, etxeak, eskolak, bulegoak...

● **Bertigorik ez al daukazu?**

▶ Haseran primeran moldatzen naiz, pare bat ordutara jartzen naiz urduri.

● **Trukorik?**

▶ Ez. Ura, jaboi neutro bat eta amoniakoa erabiltzen ditut.

● **Nola ikusten dira gauzak kristalen atzetik?**

▶ Lehenengo zikinak eta gero garbiak.

● **Zure etxeko leihoak zeuk garbitzen al dituzu?**

▶ Normalean bai, baina esaerak dioen bezala, "en casa de herrero..."

● **Euria ari duenean?**

▶ Okerragoa da eguzkia, ura berehala lehortzen da eta mantxa pila bat geratzen dira.

● **Egunean zenbat aldiz begiratzen duzu ispilura?**

▶ Behin, goizean jaikitzean.

● **Zer gustatuko litzaizuke irakurtzea biharko egunkarian?**

▶ IHES-aren aurkako bakuna lortu dutela.

● **Bizikleta ala motorra?**

▶ Bizikletan ibiltzen naiz, baina belauneko lesio txiki bat daukat; beraz... agian motor bat erosi beharko dut.

● **Euskaraz esaten ikasi zenuen lehen esaldia?**

▶ Ikasten ari naiz.

● **Eta gehien erabiltzen duzuna orain?**

▶ Ikasten ari naiz.

● **Egiten al duzu kinielarik?**

▶ Ez, baina hasteko asmoa daukat.

● **Zergatik?**

▶ Esaten den bezala, diruak ez du zoriontasuna ematen baina asko laguntzen du.

● **Debilidad bat?**

▶ Oso sensiblea naiz, gehiegi.

● **Erreenkarnatzekotan?**

▶ Arrano bat izan nahi nuke; hegan egiten duelako, indarragatik, edertasunagatik...

BERTSOLARI GAZTETXOEN GIPUZKOAKO TXAPELKETA

DOINUA:

Balentin Berriotxoarena

Maiatzak 6an kanporaketa
hogeita zortzin finala,
Zarautzekoa ez da gertatu
saio bat oso makala,
Elgoibartarrok parte hartu de
izan da kristoren gala,
aurtengo hontan Elgoibarrera
etorriko da txapela. (berriz)

Gaur arratsalde Zarautz aldean
lau partaide izan gara,
Oinak emanda neurri txikian
Gerrika ta Kepa hara.
Gaia emanda neroni eta
Xabier Astigarraga,
gure taldea osatzen dugunok
eman ditut argitara. (berriz)



JON GARATE

B
E
R
T
S
O
L
A
R
I



Garbiketak

Kristalak
Fatxadak
Obra bukaerak
Bulegoak
Pisuak e.a ...

☎ 74 39 67 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

magu's

ILEAPAINDEGIA
EDERGINTZA

San Roke 6 behe tel. 74 34 91

Fotero

OKINDEGIA
OPILDEGIA

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35

Hizkuntza eskakizunak eta presoan eskubideak eztabaidatu ziren plenoan

Joan den astelehean plenoa ospatu zen Udaletxean. Ordubete pasatxo iraun zuen eta aurreko aktaren irakurketa eta onarpenaren ondoren, eguneko gaiak aztertzeari ekin zitzaion. Hona hemen esan zirenak, puntuz-puntu.

Hizkuntza eskakizunak

Udaletxeko zenbait lanpostutarako euskarari dagokionean beharrezkoa den hizkuntza eskakizun edo perfilak ezarri ziren: igeltsero lanposturako 1go perfila beharko da, bi udaltzainek 2.a, administrari eta drogomenpekotasuneko teknikariak 3.a, bai eta aparejadoreak ere. Administrazio teknikariari, berriz, 4. perfila dagokio. Guztiei, perfila lortzeko 1995eko uztailaren 30a arte



Plenoan, Udaletxeko lanpostuetarako euskarari dagozkion perfilak ezarri ziren.

luzatuko zaie epea.

Herri Batasunak bere desadostasuna agertu zuen igeltsero lanpostuari dagokion perfilaren inguruan, hauen ustetan 1goa baino 2a perfila behar baita. Halere, mozioa haseran aurkeztu bezala onartu zen, aho batez.

Presoak

HBk euskal preso politikoei buruzko mozio bat aurkeztu zuen. Hiru puntu zehazten ziren bertan:

Lehenengoa. Espetxean epe minimoa bete duten presoek izan dezatela eskubidea baldintzazko askatasuna jasotzeko.

Bigarrena. Gaisotasun fisiko edo psikikoren bat dutenak ere aska ditzatela.

Hirugarrena. Presoak beraien jaioterritik hurbilen dauden espetxetan egon daitezela.

HBk orain dela gutxi Anoetako futbol zelaian presoan aldeko ekin-tzetan parte hartu zuen jendetza ugaria gogora ekarri zuen. PNV eta PSOE presoekin gertatzen den guztia-riaren errudun eta arduraduntzat jo zituzten, hiru puntuak ez onartzea presoan aurkako bortxa dela gaineratuz.

EA eta PNV, ordea, Euskal Parlamentuan onartu zen mozioaren alde agertu ziren, HBk aurkezturiko puntuak baina gehigarri batekin, presoek armak uztearena, hain zuzen ere.

Azken mozio hau onartu zen, HBren abstentzioarekin.

PERFILAK

- **1goa:** Ahozko eta idatzizko gutxieneko ulermena, 6. urratsa litzatekeena.
- **2.a:** Oinarrizko maila trebetasun guztietan (idatzi, hitzegin, ulertu...) 8. urratsa.
- **3.a:** Oinarrizko maila baina EGArekin, 12. urratsa.
- **4.a:** Goi maila trebetasun guztietan, hizkuntza teknikoak.
- **5.a:** Itzultzaileek, euskara teknikariek, euskaltegietako irakasleek eta abar eman behar duten euskara maila.

UDALETXEKO LANGILEAK EZAGUTZEN



▲ **IZENA:** Maria Eugenia Gonzalez

▲ **ADINA:** 28 urte.

▲ **LANPOSTUA:**

Liburutegiko auxiliarra

▲ **FUNTZIOA:** Fitxak egin, liburuak erosi, jendeari liburuak eman...

▲ **NOIZTIK LANPOSTUAN:**

1989 tik.

▲ **LANAREN ALDE ONA:**

Publikoari begira egotean jende atsegina ezagutzen duzula.

▲ **ALDE TXARRA:** Alderantziz,

jende ez hain atsegina ere ezagutzen duzula.

Altzolako Dorretxea

- 1652an premiazko bilkura bat egiteko erabili zen Dorrekua, kontzeju etxean eta bere plazan (Kalebarrengo) 900 soldadu irlandar baitzeuden, itsasontziz Bilbora iritsi ondoren Donostiara zijoazenak Espainiako erregearen agindutara jartzeko.
- 1822 eta 23an absolutista eta liberalen arteko matxinadaren unerik beroenean, Gaspar Jauregiko koronel liberalak Dorretxea gotorleku (fortaleza) bihurtu zuen.
- Harrezkero, aldaketa asko jasan ditu Dorrekuak, kanpotik zein barrutik. Izan ere, betekizun ugari eta ezberdinak eskaini dizkigu elgoibartarroi azken mendean, besteak beste: Lasalletarren ikastetxea, maisuen etxebizitzak, telefono publikoa, postetxea eta postarien etxebizitza, musika bandaren lokala, solfeo ikasgela...
- Jabeai dagokienean, dokumentoek 1484 urte arte ez dizkigute ematen bertako bizilagunen berri. Urte horretan Brunanotar Juan

Otxoa eta bere suhia Karkizanotar Rodrigo, Brunanotar Maria Fernandezekin ezkondua, dira dokumentuetan ageri diren lehen jabeak, XV. mendeko 2. erdialdean.

- XVI. mendeko lehen zatian, Lasaldeko Lope Perez da jabea, Maria Martinez Arriolarekin ezkondua. Dirudienez seme-alabarik ez zuten baina iloba bat bizi omen zen eurekin Dorrekuan, Ibarratar Katalina. Katalina, Asensio Altzolarekin ezkondu zenean bere osabak, Lope Perezek, dorretxea, jabetza eta ondasunak eman zizkion.
- 1564an, Katalinak eta Asensioak maiorazkoan jarri zituzten beren ondasunak: Dorrekua eta baratza, S.Frantzisko monastegiko kapera, Andikanoko etxea, baserria eta errotak, Ermuako etxea, lurak eta errotak, Plazako etxea eta errotak, Albitxuriko etxea, lurra eta sagastia eta 225.000 mrs (marabediak: diru) Burgos hiriko alkabaletan...

PELLO ARRIETA



Pedro Muguruza Otaño (1893 - 1952)



- Pedro Muguruza Elgoibarren jaio zen 1893. urteko martxoaren 25ean.
- Arkitektura ikasketak egin zituen Madrilan, 1916. urtean eskuratu zuelarik titulua.
- Madrilako Goi mailako Arkitektura Eskolan katedraduna izan zen.
- Eraikuntzen artean aipagarriak: 1924an Madrilako Prentsako Jauregia, 1928an Callao zinea, urte berean Prado museoaren erreforma, 1931ean Coliseum eraikuntza, Californian hainbat hotel eta mantsioren eraikuntza, Lisboan, Montevideoan, Parisen...
- 1938an San Fernandoko Arte Ederren eskolako kide egiten da eta Arkitekturako zuzendari nagusi izendatzen dute. Aurrerantzean Arkitekturako Asanblea Nazional guztietan presidente izango zen.
- Bilboko "Sagrado Corazón" berak egin zuen.
- Ezaguna izan zen Guadarramako mendikatean eraikitako "Valle de los Caídos"eko basilika eta panteoia eraikitzeagatik.



Apirilaren 28an hil zen JOSE ZABALO AGIRREren ahaideok, ESKERRAK eman nahi dizkizuegu haren hiletara joan zinetenoi, eta samin agurrak bidali eta une latz honetan lagun izan zaituztegun guztioi.

MOTZAK

Fekix Martinez eta Dina Bilbao duathloiko garaile

Guztira 166 korrikalari aritu ziren, hauetatik 9 deskalifikatu zituztelarik. Lasterketa Espainiako txapeliduna den Felix Javier Martinek irabazi zuen eta lasterketako errekorra ere hautsi zuen, errekor berria 1h 25m 25 segundutan ezarriz. Emakumezkoetan Dina Bilbao lehiakiderik ez duela erakutsi zuen, aldi handia atera baitzion bigarren sailkatuari.

SAILKAPEN OROKORRA:

- 1- Felix Martinez (1:25:25)
- 2- Iñaki Bodegas (1:25:35)
- 3- Hector Llanos (1:25:52)
- 4- Borja Oses (1:26:38)

EMAKUMEZKOAK:

- 1- Dina Bilbao (1:38:14)
- 2- Nerea Martinez (1:45:37)

ELGOIBARTARRAK:

- 56- Josu Artetxe (1:35:50)
- 83- Iñaki Andonegi (1:40:58)
- 118- Iñigo Etxaniz (1:47:30)
- 120- Juan Fernandez (1:48:32)
- 121- Juan Jose Etxeberria (1:48:33)
- 127- Imanol Larrañaga (1:50:58)
- 143- Aingeru Gallastegi (1:55:48)

Beteranoen Euskadiko Euskadiko Txapelketa

Igande honetan, hilak 8, Beteranoen Euskadiko Atletismo Txapelketa burutuko da Mintxetan. Goizeko 10etan hasiko dira lasterketak eta 100 metro, 1500 m, 400 m, triple saltoa, 5000 m eta 4x100 m errelebo korrituko dira. Elgoibartik Jose Gurrutxaga beteteranoa izango da ordezkari bakarra. Josek 100 metroak korrituko dituela esan digu, Akiles taloia minduta omen dauka eta hori dela eta ez ditu 400 metroak korrituko.



Maria Pilar Arriola:

"Kirola neretzako bizio bat da"

■ **Maria Pilar, beti kirolean, ez?**
- Bai, 10 urtekin hasi nintzan eta orain arte geratu gabe.

■ **Familiatik datorkizun zerbait al da?** - Hala ematen du. Anaixa beti futbolian eta gu konturatu be hasi ginan. Eskolan lasterketak zaudela eta, Oriak esan zigun hasi nahi gendun. Agurtzane nere ahizta eta ni hasi ginan eta gero bi gaztiak.

■ **Beti Ego-Tokin?** - Beti. Hasieran krosak eitzen, besterik ez zauzako. Neri belozidadia gustatzen jatan eta 100 eta 200 metro eitzen hasi nintzan. Gero tendinitis bat euki naban eta operau ein bihar izan nintzan. Operau eta gero laga ein naban piskat, ze belozidadian aritzeko egunero pare bat ordu entrenatu bihar dia. Hala ere, kros popularrak eitzen ditzut baina nere kontu. Egunero entrenatzen baina beste filosofia batekin.

■ **Nola ikusten duzu iragana?**
- Ez naban aldatuko. Lagun mordo bat eitzen ditzuzu. Orain ez nago konpetizioan. Beti saiatzen zera ahalik eta hobetuen ibiltzen baina lehen beste presio bat nukan. Politxa da baina gogorra ere bai.

■ **Zein dira zure lorpenak?** - Hiru bidar Euskadiko txapeliduna, Espainiako txapelketetan bostga-



rrena beste hiru bidar eta seigarrena beste bi edo hiru bidar.

■ **Gaur egun eskubaloian ari zara.** - Bai. 12 urtekin eskubaloian ibiltzen nintzan eta Eibarren ekipo batian ibili nintzan. Gero, 19 urtekin laga ein naban atletismoagatik baina aurten aukeria euki dotenian hasi egin naiz.

■ **Pentsatu al duzu inoiz triathloian hastea?** - Inoiz esan diate baina izango balitz igerixan eta korrika bakarrik bai, baina bizikletan ibiltzeko ez daukat astirik. Gustauko jatan.

■ **Kirolagatik pasioa daukazu ez?** - Bai, bizio bat da. 14 urte geratu gabe egin dot kirola eta beti daukat gogua.

■ **Derrigorrezko galdera: eskubaloia ala atletismoa?** - Orain nabilen moduan konpatibliak dia bixak.

Eskubaloian besoak lantzen dia eta ez da txarra saltakarako.

■ **Lortu al duzu zure helburua kirolean?** - Orokorrian bai. Laga nabanian pena hartu naban baina orain berriro ondo.

• Adina: 25
• Musika talde bat: danetik gustatzen jata.
• Inoiz egingo ez zenukeen kirola? Boxeua.
• Kirola, bizimodua ala afizioa? Afizio moduan hasten zera eta bizimodua izaten bukatzen du.

ARMUETA
Baserriko haragietan berezia
Harategi Urdaitegia
San Bartolome, 16. ☎ 74 06 40

oizmendi
Tel: 74 00 16
TABERNA

ORAIKO
SAN FRANCISCO 25
E LGOIBAR

MALAPE

Asteazkenean irekiko da Mintxetako muskulazio gela

Datorren asteazkenean, hilak 11, Mintxetako muskulazio gela berria irekiko da. 180 metro karratuko espazioan 30 bat pertsonak muskulatuak lantzeko aukera izango dute, 20 makina eta pesak jarri direlarik. Proiektu honekin Udalak, Mintxetako instalakuntzen eskaintza ahalik eta osatuena izatea nahi izan du.

Udalak gorputzeko muskulatuak lantzeko gela berri bat jarri du Mintxetako armailen azpiko lokaletan.

Muskulaziorako gelak 180 metro karratu ditu. Bertan, gorputz atal guztiak landu ahal izateko tresnak jarri dituzte, merkatura ateraren azken berrikuntzak nonbait. Batetik, 4 makina egongo dira "kardiobaskularrak" deitzen diren horietakoak. Hiru bizikleta izango dira eta bat, eskaierak igotzekoa. Makina hauek pultsazioak neurtzen dituzte martxan daudelarik eta intentsitatea programatzeko aukera ematen dute. Makina hauek beroketa ariketak egiteko eta koipea erretzeko aproposak dira. Beste makina talde bat, gorputzeko muskulu edo atal jakinak lantzeko izango dira. Hauek gain pesak, saltoak egiteko bankuak eta mankuernak deritzatenak ere egongo dira.



■ ■ **Makinak, atera diren azkenak dira eta gorputz osoa landu daiteke.**

Monitore batek muskulazio gelaren ardura izango du eta joaten den pertsona bakoitzari ariketa egitarau bat jarriko dio.

Muskulatzeko tresnak erabili ahal izateko hileko kuota bat ordaindu beharko da. Kiroldegiko bazkide direnentzako, prezioa merkexegoa izango da: hileko 1300. Bazkide ez direnek 1900 ordaindu beharko dute eta kanpotarrek berriz, 3500 pezeta, dutxa ere barne.

Printzipioz, pertsona batek nahi adina denbora erabil ahal izango ditu makinak, masifikazioa gertatuko balitz, erabiltzeko muga jarri beharko litzatekeelarik. Era berean, jende kopuruaren arabera litekeena da taldekako ariketak antolatzea.

Asteazkenean goizez 10etatik letara eta arratsaldean 4etatik 9,30etara egongo da irekita, eta larunbatetan goizez bakarrik 10etatik letara.

Eguzkia hartzeko zelaia

Eguraldi onari begira, futbol zelaiaren atzeko berdegunea eguzkia hartzeko jarriko da. Eguzkia hartzerako joaten direnek ez dituzte hamakak egunero eraman behar izango, Mintxetako almagaztan laga ahal izango dituzte. Eta era berean, erropak gordetzeko takilak erabiltzeko aukera izango dute. Jendeak eguzkia hartu ahal, mangera bat izango du freskatzeko. Dutzak erabiltzeko, berriz, 200 pezeta ordaindu beharko dira.

A	FUTBOLA Mintxetan Larunbata 7
	11,00: Elgoibar C.D. - Almen (Infantilak)
	12,30: Elgoibar C.D. - Antoniano (Neskak)
	16,30: Elgoibar C.D. - Ordizia (Jubenilak)
E	18,15: Eibartarrak- Aretxabaleta (Neskak)
G	ATLETISMOA Mintxetan Igandea 8
	10,00: Beteranoen Euskadiko Atletismo Txapelketa.
N	FUTBITOA Urasandin Igandea 8
	10,00: H. Verboten - Oraiko R. del Mundo - 40 duro
	11,00: Bar Roke - Karkis D. de Kalimotxo - Ametsa
	12,00: Arroak - Kosakos Mimox - Garages Garcia
A	

E	PILOTA Herri arteko pilota txapelketa
	Azkoitia 18 - Elgoibar 4 (Infantilak)
	Azkoitia 22 - Elgoibar 10 (Jubenilak)
M	Azkoitia 22 - Elgoibar 14 (Nagusiak)
	ESKUBALOA
A	Elgoibar 15 - Mundaiz 13 (Kadeteak)
	Elgoibar 21 - Hondarribi 20 (Jubenilak)
I	ARETO FUTBOLA
	Elgoibar A.F. 2 - Giroa 1 (Lehen maila)
T	Elgoibar A.F. 3 - Carni. Jauregi 4 (2. maila)
	FUTBOLA
Z	Valmaseda 1 - Haundi 1
	Elgoibar 1 - Zumaiako 4 (Neskak)
	Elgoibar 2 - Arrasate 0 (Kadeteak)
	Elgoibar 7 - Dunboa 2 (2. errejionala)
	Elgoibar 0 - Hamaika bat 0 (Jubenilak)
	La Salle 1 - Elgoibar 1 (Infantilak)
A	
K	

EUSKALDUNON

J A I A 9 4



EUSKALDUNON **Egunkaria**

MAIATZAK 15 AMASA-BILLABONA

SEBASTOPOLEKO TITIRITEROAK - KUKUBILTZO -
DULTZAINEROAK - TXARANGAK - HAUR JOKOAK - DANTZARIAK -
HANKAPALOAK - ERRALDOIAK - TRIKITILARIAK - TXALAPARTARIAK -
BERBENA - ESKOLAKO UME LASTERKETA - HERRI KIROLAK - GAZTEEN
ESKUPILOTA TXAPELKETAREN FINALA - GAZTEEN JOKO GARBI
TXAPELKETAREN FINALA - HERRI BAZKARIA - **MAIXA ETA ITZIAR -**
ROCK KONTZERTUA: TAPIA & LETURIA - ANJE
DUHALDE - EXKIXU - BERTSOLARI GAZTEAK

Rosa Maria Sanchez gernikarraren margoak daude ikusgai Kultur Etxean

Rosa Maria Sanchez margolari gernikarraren lanak erakusgai egongo dira Kultur Etxeko erakusgelan aste honetan eta hurrengoan. 33 urteko emakume honek 31 lan ekarri ditu Elgoibarko Kultur Etxera, tartean, erretratuak, paisaiak eta irudiak.

Rosa Mariak afizioz margotzen duela aitortu digu. Autodidakta da, esperimentatuz ikasi ditu pinturaren sekretuak eta eskuarki, oleoa margotzen du oihal gainean. Lehen erakusketa 1979. urtean burutu zuen baina 1991. urteaz geroztik, serioago hasi zen erakusketak egiten.



Erakusgai dauden lanak salgai daude, era berean. Lanen batzueko zenbatekoa 50.000 pezetakoa da. Erakusketa zabalik egongo da hil honen 15a arte. Bisita ordutegia arratsaldeko 7etatik 9etara bitartekoa izango da astegunetan eta 12etatik 2etara jaiegunetan.

“Elgoibar ezagutzeko giltza” lehiaketa


Caja Laboral-Euskadiko Kutxa eta BARREN astekariak antolatutako “Elgoibar ezagutzeko giltza” lehiaketako lehen galdera sortaren irabazlea Miren Arrieta Barrenetxea izan da eta pentsioa Caja Laboraletik kobratzearen 50.000 pezetako saria jasoko du. Aste honetan bigarren sortari dagozkion galderak agertzen dira BARRENEko azken orrialdean, eta beraz, erantzun zuzenak jarri eta Caja Laboral-Euskadiko Kutxara eraman. Gogoratu bezero izanez gero, kartoi gehiago eskuratu eta saria bikoiztu egin daitekeela.

Udaberriko Eskaintza



sake
KOPERATIBAK

**Maiatzaren 9tik
Ekainaren 10era**



ETXERAKO
ALUMINIOZKO
ESKAILERA

2.995
PTA.
5 MAILAK

2.582
PTA.
4 MAILAK



ORGATILA
GALBANIZATUA

3.325
PTA.

10.990
PTA.



ARTZAI ELEKTRA
PASTOREA PILAREKIN

INEKO

ITZIARKO NEKAZARI KOOPERATIBA

Tel. 199300 - 199330
20829 ITZIAR - DEBA

EGA ateratzeko garaia da

Jakingo duzuen bezala, garai honetan egiten dira EGA titulua eskuratzeko beharrezko diren frogak.

Titulu hau lortzeko hiru froga gainditu behar dira. Lehenengoa "atariko froga" delakoa da. Hau, test erako azterketa bat da non entzumenezko froga bat ere sartzen den. Bigarrena idatzizko froga da, garrantzitsuena, kasu honetan, idazlana izanik. Bi azterketa hauek gaindituz gero, ahozko frogarako atea zabalik dituzu.

EGA titulua izatea Euskal Herrian zenbait lanpostutarako onuragarria gerta dakizuke, beste kasu batzuetan beharrezkoa den bezala.

Titulua ateratzeko adinik egokiena 17 urte da. Alde batetik frogak gainditu ahal izateko ikaste-txeetan prestatzen zaituztelako eta, bestetik, ondorengo ikasturteetan denbora arazo gehiago izan daitezkeelako.

Elgoibarko Batxilergo Institutuko %68ak gainditu du aurten atariko froga. Zuzendariaren ustetan kopuru hau bestetan izan denaren antzeko izanik, ontzat jo daiteke.

Jakin nahi dūnarentzat hona hemen falta diren azterketak egingo diren datak:

Idatzizko bigarren txanda: 94-V-7

Ahozkoak: 94-VI-3/4/10/11 eta 18

Zer iruditzen zaizu EGAKo azterketa?

ITZIAR ARANA

"Azterketa zailagoa izango zela espero nuen, baina emaitzak jakin ondoren erantzungo dizut errazaala zaila izan den."



MARTA RUIZ

"Galdera batzuk nahiko errazak baina beste batzuk zailgiak. Nik ez nuen oso ongi egin."



Arnaitz Gorriti, Emilio Urzelai I. Bertso Sariketako finalean

Joan zen larunbatean, Oñatin jokatu zen Emilio Urzelairen omenezko lehenengo sariketan, Deba bailarako hamabi bertsolari gaztek hartu zuten parte. Beraien artean bi elgoibartar izan ziren, Arnaitz Gorriti finalera pasa zelarik. Ongi burututako lan honen ondoren, aurki jokatuko den Eskolarteko txapelketan ere paretaide izango dugu. Zorionak eta zorte on.

karkizano
San Franzisko 12-14, Tel. 74 05 49

Arrieta
modak
San Bartolome 18
☎ 74 08 49

ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Franzisko 49-1 tel. 74 11 89

UDA
BERRI
ELGOIBAR

Etxebizitzak

Apartamentu bat daukat Benidorm-en alokatzeko moduan. Levanteko hondartzako lehen ilaran. Igerilekua eta aparkalekua dauka. Baita labadora eta aire girotua ere.

☎ 74 16 57 / 11 32 15

PISU BAT SALGAI Altzolan. Karmen plaza 3 - 1 ezkerre. (15 milioi) **Interesatuok etorri bertora.**

PISU BAT ALOKATUKO nuke Elgoibarren. ☎ 74 30 25 / 74 34 49 **Amaia**

Lana

LANGILE BAT BEHAR DA ETXEPE S.A. ENPRESAN Baldintzak: Euskaraz jakin hitzez eta idatziz. Fresadora C.N.C. edo Mandrinadora C.N.C. menperatu. Elgoibarren bizi. ☎ 74 12 97.

31 urteko neska etxeko lanak, umeak zaindu, garbiketa lanak eta antzerako lanak egiteko prest dago. ☎ 17 17 40

Salerosketak

KANPING DENDA HAUNDI BAT saltzen da. Oso berria dago. ☎ 74 15 22

KITARRA ELEKTRIKO BAT SALTZEN dut. Egoera oso onean. Oso merkea Deitu ofizina orduetan: ☎ 74 17 15 Iban

GARAGE BAT ALOKATZEN DA, pista beltzean. Bere atearekin. ☎ 74 16 97

YAMAHA TZR 80 bat saltzeko daukat. SS-AB ☎ 74 41 12 Nekane

EGURREZKO SEHASKA zuri bat saltzen da egoera eta prezio onean. Ermuaran bide 9 - 1 ezk.

GARAGE BAT saltzen da pista beltzean. Prezio egokia ☎ 74 08 79 Julian

GARAJE BAT ALOKATZEN da, San Roke Sean. Marraduna. ☎ 74 08 05

San Roke auzoan TERRENOAK SALGAI ditut. ☎ 74 39 89 Rufina

Ford Escort gorria saltzen dut. SS 0883 AJ. ☎ 74 15 24

"Catusa" 4,20m.tako karabana bat salgai dut. Ondo zainduta. ☎ 74 12 95 Pello

Lehenengo jaunartzeko HABITO BAT SALTZEKO EDO LAGATZEKO daukat. ☎ 74 27 66 (Tere)

Bestelakoak

URREZKO PULTSERA BAT GALDU dut, Muxi Kirolak parean. Aurrean ANDREA jartzen du eta atzean 17-10-89. ☎ 74 15 19. Andrea

BELARRITAKO BAT aurkitu nuen Aste Santuan, Kalamuara igotzen ☎ 74 07 73. Nekane

Bigarren eskuko FRIGORIFIKO BAT HARTUKO NUKE. Deitu 10etatik-12etara ☎ 74 06 64 Nekane

KARTERA GALDU NUEN larunbatean hiru giltz zituela barruan. ☎ 74 20 44 Mila

APIRILEAN

Hildakoak

- ▶ Sotelo Mancebo Navarro (63 urte) Apirilak 3
- ▶ Ascension Gabilondo Etxeberria (76 urte) Apirilak 7
- ▶ Martin Landa Artetxe (89 urte) Apirilak 8
- ▶ Maria Auxiliadora Arruza Ironiza (55 urte) Apirilak 13
- ▶ Jose Zabalo Agirre (62 urte) Apirilak 28
- ▶ Sor Carmen Elizalde Erasun (89 urte) Apirilak 30

Ezkonduek

- ▶ Eduardo Iriondo Astigarraga eta Elsa Salegi Zendoia (Apirilak 9)
- ▶ German Pedrosa Zubiaurre eta Mirari Alberdi Kruzelegi (Apirilak 30)

Jaiotakoak

- ▶ Aitor Luna Azpiazu (apirilak 10)

Lizzy
Errosario, 25 - ☎ 74 23 02

GAZTEENTZAKO MODA

HISPANIA ZURICH

C. Romera

Mota guztietako aseguroak eskaintzen dizkizuegu.

Artekale z/g behea. Elgoibar. Tel: 74 07 52 - 74 29 08

Salvador Celaya
ITURGINTZA
BILTEGI ETA BAINUGINTZA
BEROGAILU ELEKTRIKO ETA GASDUNAK

Errosario 22. Tel: 74 04 94

Tik-Tak

BATAIO ETA JAUNARTZE JANTZIETAN ESPEZIALISTAK

Errosario 21, ☎ 74 17 15 ELGOIBAR

6 OSTIRALA

18,30 ODOL ATERALDIA

✓ Odol Emaileen egoitzan.
(P.M. Urruzuno 8).

7 LARUNBATA

15,00 TIRO TXAPELKETA

✓ San Pedron
Antolatzailea: La Union Elkartea.

16,00 GARE-REN BILERA

✓ Kultur Etxean

16,00 POTX HERENSUGEAREN ANTZERKI FESTA

✓ Plaza Handian
Antolatzaileak: Euskal Begirale Eskola eta Elgoibarko Izarrako Begirale Taldea.

17,00 GAZTETXEAREN JAI EGUN ERREIBINDIKATIBOA

Panel informatiboak, malabarak, trikitixa, tiro al fatxa...

✓ Maalan
Antolatzaileak: Gipuzkoako Gaztetxe eta Gazte Asanbladen Koordinadora eta Elgoibarko Gazte Asanblada.

19,00 MANIFESTAZIOA

✓ Maalan
Antolatzailea: Gazte Asanblada.

22,30 KONTZERTUA

Kokoteraino, Ume Gaiztuak eta Anticuerpos
✓ Ikastolako frontoian
Antolatzaileak: Gazte Asanblada.

8 IGANDEA

8,30 HERRI URRATSERAKO AUTOBUSA

✓ Irteera: Sigmako Zubian
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

10,00 BETERANOEN EUSKADIKO ATLETISMO TXAPELKETA

✓ Mintxetan

10 ASTEARTEA

20,00 ATLETISMOARI BURUZKO BILERA

Gaia: Herriko atletismoaren egoeraren azterketa.
✓ Kultur Etxean

11 ASTEAZKENA

20,30 TXANKAKUA ELKARTEKO URTEKO BAZKIDE ASANBLADA

✓ Kultur Etxean
Ondoren bazkide arteko afaria Txarriduna Jatetxean.

12 OSTEGUNA

19,00 TREBETASUN SOZIALEN PROGRAMA

Gazteei zuzendua
✓ Kultur Etxean
Antolatzailea: Hodei

txandak

FARMAZIAK:

6, ostirala: Etxeberria
7, larunbata: Etxeberria
8, igandea: Etxeberria
9, astelehena: Ormazabal
10, asteartea: Ormazabal
11, asteazkena: Ormazabal
12, osteguna: Ormazabal
13, ostirala: Yudego

OKINDEGIA:

8, igandea: EIZAGIRRE

POTX HERENSUGEAREN ANTZERKI FESTA

Elgoibarko haurrok, etorriko al zarete POTX herensugearen bila?

NOIZ? Maiatzaren 7an, larunbata. Arratsaldeko 5etan hasita.

Non? Plaza Handian.

**Zatozte !!
Primeran pasako dugu!**



ANTOLATZAILEA: EUSKAL BEGIRALE ESKOLA ETA ELGOIBARKO IZARRAKO BEGIRALE TALDEA

SUPER LEHIAKETA


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Gogoratu bezero izateagatik
saria **BIKOIZTU** daitekela.
informa zaituz!

San Inazio, 1 • ELGOIBAR • Tel. 74 06 54

~ ~ ~ ~ ~
\$ 1. GALDERA SORTAKO \$
\$ IRABAZLEA \$
\$ **MIREN ARRIETA** \$
\$ **BARRENETXEA** IZAN DA. \$
\$ Pentsioa Caja Laboralean \$
\$ kobratzeagatik \$
\$ **50.000 ptako** saria \$
\$ jaso du Mirenek. \$
\$ **Zorionak!!!** \$
~ ~ ~ ~ ~

S A R I A K

- Astero **25.000 ptako** gutxieneko saria. Kartilaren jabeak nomina, pentsioa edo autonomo erreziboa bertatik jasoz gero saria **BIKOIZTU** egingo da (**50.000 pta.**).
- Azken saria **100.000 ptakoa** izango da gutxienez. Nomina, autonomo erreziboa edo pentsioa bertatik jasotzen duenak nominaren kantitate berbera jasoko du, **200.000 pta** gehienez.

*Anima zaituz
parte hartzera !!*

2. GALDERA SORTA

1. Zein urtetan sortu zen San Bartolome Ikastola?
A. 1966an
B. 1964an
C. 1962an
2. Baltasar Elkarte sortu zenean, zein ezaugarri zuten bazkide guztiek?
A. Denek trajea eta gorbata zeramaten
B. Denek txapela zeramaten.
C. Denek aterkia zeramaten
3. Bikote hauetatik nork eskalatu zuen Aconcagua?
A. Barrenetxea - Esnaola
B. Barrenetxea - Konde
C. Esnaola - Konde
4. Margolari hauetatik noren erakusketa ikusteko aukera izan genuen 1993. urtean Elgoibarko Kultur Etxean?
A. Luziano
B. Jose Ramon Elorza
C. Santi Oria
5. Noiz jaiotzen zen Luis Mazzantini toretzaile elgoibartarra?
A. 1856an
B. 1836an
C. 1865ean

2. GALDERA SORTAko erantzunak maiatzaren 11a baino lehen utzi beharko dituzu Caja Laboral-Euskadiko Kutxan jarriko ditugun buzoietan.

Elgoibar ezaugutzeko giltza



Hemendik aurrera

MUSKULAZIO GELA MINTXETAN



IREKIERA, maiatzak 11 asteazkena, arratsaldez

MONITOREA

Norberaren neurriko programaketak monitore baten eskutik.

HILEKO KUOTA (Dutxak barne)

- Kiroldegiko bazkideak: 1.300 pta
- Elgoibartarrak: 1.900 pta
- Kanpotarrak: 3.500 pta

ORDUTEGIA

Goizez: 10:00 - 13:00

Arratsaldez: 16:00 - 21:00

Larunbatetan: 10:00 - 13:00

BESTELAKO ZERBITZUAK

- Eguzkia hartzeko zelaia
- Hamakak uzteko tokia
- Takilak eta dutxak

Udal Kirol Zerbitzuak eskaintzen dizkizun beste zenbait zerbitzu: Tenis pista, futbol zelaiaren alogera, atletismo pista eta abar...

